

Humboldt, Astarloa eta Mogel

(Humboldt, Astarloa and Mogel)

Altzibar, Xabier
Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena zuoa
48940 - Leioa

BIBLID [0212-7016 (1996), 41: 2; 587-596]

J. Garatek Humboldttek euskal hizkuntzalaritzari ekarria goraipatu zuen bitartean, Mitxelenak Astarloak Humboldtengan izaniko eragina azpimarratu zuen. Txosten honetan Humboldttek Astarloa eta Mogelegin izandako harremanak eta elkarren arteko eraginak laburtzen dira, gramatika, lexiko eta Iberiar Penintsulako toponimia arloetan. Humboldtten beste alderdi ezagun batzuen inguruko zehaztasunak ere ematen dira, adib. hari esker Astarloa eta Mogelen obra batzuk ezagutzen ditugula, latinezko klasikoen testu eredugarriak euskarara itzularazi zituela, Leloren kanta zabaldu zuela Europan etab. Txosten honetan oraindik aztertu gabeko gai bat jartzen da eztabaidagai, kultur-antropologia arloan Humboldttek ekarriari buruz: euskal folklorezaleen aitzindari izan zela, eta haren bidez, agian, erromantizismoaurrea euskal idazleetan sartu zela, Mogelen Peru Abarka lekuko.

Giltz-Hitzak: Euskal hizkuntzalaritza. Antropologia kulturala.

Mientras J. Gárate subrayaba la aportación de Humboldt en lingüística vasca, Mitxelena señaló su falta de originalidad y su deuda con Astarloa. En esta comunicación se resumen las relaciones de Humboldt con Astarloa y Mogel y su mutua influencia en el campo gramatical, léxico y toponímico. Se especifican con detalle otros aspectos conocidos de Humboldt (la conservación o conocimiento de algunas obras de Astarloa y Moguel gracias a aquél, su influjo en la traducción de textos clásicos latinos al euskara y la difusión del Canto de Lelo en Europa). En este artículo se plantea un tema apenas esbozado hasta ahora, relacionado con la aportación de Humboldt en el campo de la antropología cultural: su labor como pionero en la recogida de material folklórico vasco y, tal vez, como introductor de elementos prerrománticos europeos en autores vascos, por ejemplo en el Peru Abarka de Moguel.

Palabras Clave: Lingüística vasca. Antropología cultural.

Alors que J. Garate soulignait la contribution de Humboldt en linguistique basque, Mitxelena marquait la faute d'originalité et sa dette avec Astarloa. Dans cette communication je résume les relations culturelles entre Humboldt, Astarloa eta Mogel et ses mutuelles influences dans les champs de la grammaire, lexique et toponymie. L'article spécifie autres contributions de Humboldt (la conservation ou l'information sur quelques oeuvres de ces auteurs, la traduction de textes latines au basque et la diffusion par l'Europe du Chant de Lelo). Il pose une nouvelle question relationnée avec la contribution de Humboldt dans le champ de l'anthropologie culturelle: il a été le premier folkloriste basque avant le mot, et grâce à lui, peut-être ont été introduits quelques éléments preromantiques dans les oeuvres des auteurs basques, comme au Peru Abarka de Moguel.

Mots Clés: Linguistique basque. Anthropologie culturelle.

Duela zenbait urte euskaraz idatzitako artikulu batean, Wilhelm Humboldték 1801eko bidaldiaren ondoren euskara eta euskaldunei buruz esandakoen laburpen trinko bat egin nuen, A. Flitner-ek bere edizioan eginiko ohar batzuetan eta Humboldték euskal hizkuntzalaritzari egindako ekarriez Mitxelenak eginiko azterketan oinarrituz. A. Flitner-ek Herder-en kultur-antropologiatik hurbilago ikusten du Humboldt frantses ilustrazio liberaletik baino. Mitxelenak Astarloaren eragina azpimarratzen du, hizkuntzen eboluzio historikoari dagokionez bere garaikoak baino atzeratuago zegoela esanez, nahiz aurreratuago hizkuntzalaritza orokorrean¹. Geroztik, ordea, hizkuntzalaritza orokorrari dagokionez behintzat Humboldt gero eta aintzat hartuago dagoela dirudi (eta, bide batez esateko, Astarloa ere bai). Humboldtén garaia eta haren pentsamendu filosofiko-antropologiko-linguistikoa gero eta interes gehiago sortarazten ari da. Interesgarriena, agian, Humboldték garaiko eztabaidak eta ikuspegi desberdinak gure artean aurkeztu izana da. Pentsamendu unibertsaleko jakintsu honen idazlanek zer esana eta eztabaidatua emango dute, Alemanian ez ezik munduan eta agian Euskal Herrian ere (hala bedi!).

Txosten honetan Humboldték Astarloa eta Mogeekin izandako harremanak aztertuko ditut laburki, hark hauengan –eta alderantziz– izandako eraginak, zein arlo edo interesgune-tan gertatu ziren eta jartzen dituzten galdera batzuk. Kontuan eduki bedi Humboldt, Astarloa eta Mogelek alderdi anitz erakusten dutela, eta asmo eta joera desberdinak dituztela: Humboldték euskal hizkuntza, euskaldunak eta antzinateko egoera aztertzea; Astarloak, horretaz gain, euskararen apologia egitea eta euskal kontzientzia zuzpertztea; Mogelek, hizkuntza lantzea.

Humboldt Euskal Herrira itzuli zenean 1801ean euskara hobeto ezagutzera eta euskararen maisuarekin, hots, ASTARLOArekin egotera etorri zen. Humboldték euskara ongi ezagutu nahi zuen hizkuntza isolatua zelako, eta hemendik joatean bere lehen esperientzia onuragarria izan zela aitortu zuen, bere jakintza osatu gabe gelditu zela aitortuz². Astarloa Humboldtén gidari izan zen, bada, euskara kontuetan, bere eskuizkribuak utzi zizkiola, hainbat eta hainbat urtetako ikaslanen fruitu zirenak. Astarloak mesede ezin handiagoa egin zion Humboldt; Humboldték ere, bere aldetik, gizon prestua eta esker onekoa zela erakutsi zion laudorioz beteaz eta obrak argitaratzera bultzatuz (nahiz giroak eta *Apologia*-k sortutako erreakzioak hizkuntzari buruzkoak barik beste apologia moduko batzuk idaztera bultzatu zuten Astarloa).

Humboldték Astarloa pertsona eta jakintsu modura goraiatzen du, haren lagunartearen berri ematen digu, eta datu batzuek durangarraren biografia aberasteko balio dute. Prusiarraren arabera Astarloa ona, atsegina, alaia, haurzalea, jakintsu eta ilustratua zen; haren lagunak herriko jenteak ziren, denak herrizale eta euskarazaleak; haren semearen heriotzaren berri ematen du ere bidaialiburuan. Euskara kontuetan gehien dakiena dela dio eta toki izenak arretaz jasotzen dituela. Astarloak Humboldt harrera ezin hobea egin zion, itxura denez³.

1. Altzibar, X., "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera*, XXXI, 1986-1, 17-45.

Humboldt, Wilhelm von, *Werke in Fünf Bänden*, Hrsg. A. Flitner-K. Giel.– Mitxelena, L., "Guillaume de Humboldt et la Langue Basque", *Lengua e Historia*, Madrid, Paraninfo, 1982.

2. Garate, J., *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* (Bilbao, Imprenta Provincial, 1933), "Fragmentos filológicos vascos", *Über die Verschiedenheiten des menschlichen Sprachbaus* idazlaneko euskarari buruzko zatiez ari dela.

3. "Cartas a Carolina", 1801-V-13, in Garate, aip. *G. de Humboldt*...., 91-92. or.

Garrantzitsuen, ordea, Humboldti esker Astarloa eta Mogelen obra batzuk ezagutzen ditugula da, hauen erreseina eta kritika egin zuelako (bere iturriak eta lagungarri izan zitzaizkion obrak aipatzerakoan), edo berak kopiatuta gorde zituelako, bestela galduko baitziren. Hau da *Plan de Lenguas* edo bizkaierazko gramatikaren kasua. Obra honetaz gelditzen zai-gun apurtxo, hain zuzen, Humboldtnek berak ateratako laburpen ("Extracto") bat da⁴. Obra hau argitaratzeko asmotan idatzia izan zela, nahiz osatu gabe, diosku Humboldtnek; plan organiko bat eta erregela orokor eta sinpleak erakusten dituela; Astarloak inork baino hobeto ezagutzen duela bere ama-hizkuntza, eta beste hizkuntza batzuk ere badakizkiela. Kritika batzuk egiten dizkio: sistema endekatua dela, aurreiritziz bete, euskal gramatika beste hizkuntzentzat eredu gisa jarri nahi duela, hizkuntzaren izaera orokorki aztertzerazuzendua dela (erakusburu xoil gisa euskara erabiliz) eta ez euskararen eraikuntza historikoa, hein handi batez hitzen eraketaz diharduela letra bakoitzari, bakarka hartuta, esan-nahi bat bilatuz, eta ondorioz sasietimologia ugari dakartzala. Hala ere, ez dioela hau guztia gizon bikain honen ikerketa neketsuak den guttienik balioegutzitzeko⁵.

Plan de Lenguas J. B. Erroren paperen artean zegoen eta honen iritziz *Discursos Filosóficos*, Humboldtnek aipatzen ez bide duena (?), *Plan de Lenguas*-en azalpen bat besterik ez zen⁶. Beraz kontu hau ez dugu oraindik garbi ezagutzen. Gero bestalde, beste laburpenen bat ere ba omen dago, eta gainera Humboldtnek *Plan de Lenguas*-en laburpena baino zerbait gehiago kopiatu zuela dirudi, kapitulu osoak⁷.

Humboldtnek Astarloaren *Apología*-ri argiak eta itzalak ikusten dizkio: erakuste-metodoak ez duela interesik, ezta konkklusioak (hizkuntza naturala=antzinako hizkuntza=beraz, herri jakintsu batek asmatua izan behar zuela), ezta etimologiek; bai gramatika- eta hiztegi aldetiko oharrek, toponimia-datuek; baita hizkuntzaren antzinasuna erakusten duelako (egitura edo eraikuntzaren ongi eginean). Humboldtentzat, nolana ere, Astarloaren obra argitaraga-beak (*Plan de Lenguas*) balioetsuak dira argitaratuak baino.

1801eko bidaldian Humboldtnek Juan Antonio MOGEL ere ezagutu zuen Josef Maria Murgaren bitartez. Humboldtnek arabera, Mogel "Bizkaiko hizkuntzalari hoberenetarikoa" zen⁸. Eta Humboldtnek erregu eta eraginez Mogelek *Versiones Bascongadas* prestatu zuen argitaratzeko, bai Mogelek, bai Humboldtnek berak aitortzen dutenez (irakur bedi izenburu

4. Humboldt-en erreseinak, in Garate, aip. *G. de Humboldt...*"Fuentes y medios auxiliares para el estudio de la lengua vasca", 146. or.

Plan de Lenguas ó Gramatica Bascongada en el dialecto bizcaino, por D. Pablo Pedro de Astarloa y Aguirre. Laburpena ("Extracto"), RIEV 1935, XXVI; id. "Pablo Astarloa. Extracto humboldtiano de su Plan de Lenguas", *Euskera* VI, 1961, 247-279.

5. Garate, aip. *G. de Humboldt...*"Fuentes y medios auxiliares...", 147.

6. *Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva o Gramática y Análisis razonado de la Euskara ó bascuence por D. Pablo Pedro de Astarloa, Presbítero, natural de Durango* (Bilbao, 1883). Egilea hilda ia laurogei bat urtera argitaratu zen lehen aldiz. Erroren iritzia, in Garate, J., *Ensayos Euscarios* (Bilbao, Neilly, 1935), "Cinco cartas inéditas de G. de Humboldt".

7. "(...) yo solo poseo una copia literal de algunos capítulos, tablas y un extracto muy detallado, en forma que aún quedan algunos huecos", Garate, aip. *G. de Humboldt...*, 147. "Yo poseo extractos exactos y completos que hice en casa del mismo autor, como también copias sacadas palabra por palabra de varios capítulos y tablas", *Correcciones y Adiciones a la primera Sección del segundo volumen de la obra intitulada el Mithridates sobre la Lengua Cantábrica ó Vasca por Guillermo de Humboldt en Berlín año de 1817, en la Librería de Voss*, RIEV XXIV, J. Garate-ren itzulp., 67. or.

8. "Fuentes y medios auxiliares pra el estudio de la lengua vasca", in Garate, aip. *G. de Humboldt...*, 149.

osoa). Latinezko idazle bikainen zati hautatuen euskarazko itzulpenak dira⁹. Zergatik eta zertako? Mogelen aldetik euskararen garbitasun, aberastasun, zernahi adierazteko gaitasun eta adierazkortasun edo elokuentzia erakusteko eta frogatzeko (elokuentzia berezkoa, ez artifiziala, "Elocuencia sin artificio" Feijook zioenez). Hitzaurrean Mogel euskara landugabea delako aipuaren (era zakarrean Mariana, Nicolas Antonio eta abarrek adierazia) aurka agertzen da, auzi honetan bere alde ekarriz Bowles, Scaligero, Masdeu eta batez ere Humboldt. Mogelek dio –ez Humboldték– honek euskara adierazkorra, garbia eta aberatsa dela frogatu nahi duela eta horregatik berak, hark eskatuta, itzuli duela *Versiones Bascongadas*¹⁰.

Dena dela, Humboldték liburu honetako testu bat ezarten du *Adelung-en Mithridates-i Zuzenketak eta Eraskinak* delako liburuan, euskal idaztanka eta poesiaren erakusburu gisa, ohar batzuekin: Salustius-en Catilinaren zati bat. Ohar bedi Salustiusen itzulpen hau 1802ko edizioaz desberdina dela, 1802koa ia parafrasia den bitartean Humboldték dakarrena latinezko jatorrizko testuari askoz lotuagoa da-eta¹¹. Bestenaz, latinzaletasun hori bera erakusten dute Humboldt, Mogel, eta J. M. Murgak. Latinezko klasikoek testu hautatu horiek eredutzat joak dira eta, gainera, garaiko izpiritu neoklasikoarekin bat zetozen, Erromako Errepublikaren bertuteak eredugarritzat hartzen baitzituzten (ohitura moral onak, austeritatea, gerragintzaletasuna). Diogunaren erakusburu ona da Tacitus-en "Germanikoren Izkundea soldadu matxinatuai" hitzaldiko hasiera-hitzak: "Nere emazte, ta nere Umeak ez ditut maiteago nik (n)ere Aita ta Erria baño...".

Mogel, Astarloa ez bezala, apologista praktikoa izan zen, euskara lantzen zuena. Sorterria goratzeko eta euskara landugabea ez dela erakusteko hori zen harentzat bide egokiena eta honetan ilustrazioaren semea zen.

Humboldtí esker gorde izan da Mogelen obra bat ere: *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma Vasconce*¹², zeinen bigarren zatia osorik argitara gabe bai-

9. *Versiones Bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores Autores latinos. O Demonstración práctica de la pureza, fecundidad, y eloqüencias del idioma Vasconce contra las preocupaciones de varios Escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio.* Por Don Juan Antonio de Moguel y Urquiza. Con licencia. En Tolosa: Por Don Francisco de la Lama. Año M.DCCC.II.

Correcciones y adiciones..., J. Garate-ren itzulp., RIEV XXIV, 1933, 66, 71, 74-76 or.

10. "El Sabio Prusiano quiere demostrar que el idioma Bascongado es eloqüente, puro y fecundo. Por su súplica e influxo, he hecho las versiones de varias arengas, y oraciones selectas de Q. Curcio, Tito Libio, Tacito, Salustio, y tambien las de los dos exordios de las dos oraciones de Ciceron contra Catilina: todas piezas de la mayor elegancia. Para el estilo de sencilla elegancia he vertido dos Anecdotas latinas: la una de Ciceron sobre el pasage de Dionisio de Siracusa con su aulico y adulador Democles, y la otra de Tito Libio sobre la traicion del maestro de Falisco". (Prólogo).

11. Hona hemen latinezko testua: "Comptertum ego habes, milites, verba viris virtutem non addere; neque ignaro strenuum, neque fortem ex timido exercitum oratione imperatoris fieri. Quanta cujusque animo audacia natura, aut moribus inest, tanta in bello patere solet. Quem neque gloria, neque periculo excitant, nequicquam hortere, timor animi aurius officit." *Correcc. y adic.*, aip. ediz., 74.

Hona hemen orain Mogelen itzulpena: "Ezagaturic daducat, Soldaducak, ez diela itzac guizonai azcortasunic erasten; ta aguintariaren irauntsi ta equiñequin ez dala Soldaateguia, nagui baldana bada, pizcortzen, ez da ere beldurtia sendotzen. Berez ta jatorriz bezala bacoitac duena, aguertuco du escuetara datorrean. Alperric jardun ta equingo diozu, irriscu ta icen onac iguitzen ez duenari. Biotzeco beldurac concertzen ditu belarriac", *Correcc. y adic.*, aip. ediz., 75.

12. *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma Vasconce. En la que se trata de la Religión de los antiguos Cántabros, de la Unidad del Idioma primitivo Español contra el sistema particular del Abate Masdeu. Demonstración de los vocablos vascongados que se hallan en toda la península según el mapa general de España; Nombres de la Historia antigua de ella. Nomenclatura de Cartaluña. Su autor, D. Juan Antonio Moguel Cura Párroco de Marquina en Vizcaya.* Gaubeka, 1936; 2. zatia, Gaubeka, 1937, *Euskera*, 1937, XVIII, 3-64.

tago oraindik. Beronek Astarloaren *Apologia* dakarkigu gogora, eta batez ere 1821ean Humboldték argitaratuko zuen liburua: *Espainiako Lehen Biztanleei buruz Euskal Hizkuntzaren bidez eginiko Ikerketen Azterketa* (hots, *Prüfung* delakoa)¹³. Beraz, Humboldték Mogelen obrarekiko interesa izatea ez da arraroa: honen euskarari buruzko ikerketak Euskal Herriari eta penintsulako antzinako biztanle eta egoerari buruzkoei lotuta zeuden, berak ere badioenez¹⁴.

Obra honetan Humboldték Iberiar Peninsulako antzinatea euskararen bidez aztertzeo saioa egiten du¹⁵. Toponimia eta onomastikaz baliatzen da huts-hutsik (nahiz beste baliabide batzuk erabiltzea pentsatu zuen). Baina penintsulako toponimia euskararen bidez aztertzean Humboldt ez zen orijinala: Pozagandik hasita hala egin ohi zen (eta ondoren Garibai, Zaldibia, Larramendi...). Italiako toponimiarako, ordea, euskara ez zen erabiltzen, harik eta Hervas eta Mogekek, eta hauei jarraituz Humboldték, egin zuten arte, nahiz honek Italiako penintsulan euskara zabaldua zegoelako kontua garbi ez duen ikusten. Jakina, metodologian dituen balioak aintzat hartu arren, orduko hizkuntz teknikak eta jakintza urriak ziren gero-ago ikasitakoarekin konparatuta eta konklusio gehienak hutsean gelditzen dira. *Prüfung* arrakastatsua izan zen, edukiagatik baino gehiago beste arrazoi batzuegatik, Mitxelenak dioenez¹⁶. Humboldték *Prüfung* Goethe, Schlegel eta abarri bidali zien eta horrela euskaldunei buruzko interesa zuzpertz. Obra honetan Humboldték ospetsu egin zuen J. Caro Barojak "vasco-iberismo" deituko duen teoria, jada Schuchardtek *Die Iberische Deklination* (1907) obran prusiarrak baino hobeto kokatu zuena. Edozein modutan ere, interesgune eta bide beretsuek biltzen dituzte berriz ere Humboldt, Mogel eta Astarloa: antzinatea euskararen bidez aztertzeak.

Mogekek erakutsi zion Humboldti Leloren kanta, honek Europan ezagutarazi zuena (*Adelung-en Mithridates-i Zuz.*). Hain zuzen, euskarak baino interes handiagoa sortaraziko zuelakoan zegoen Humboldt. Eta kantaren antzinateasunaz zalantzak agertu arren, espainiar poema guztiak baino zaharragoa zela baieztatu zuen, are euskarazko besteak (adibidez Beotibarkoa) baino zaharragoa. Honetan oso oker zegoen: Leloren kanta apokrifoa zenik ez zekien. Beraz kanta hau Humboldték argitara zuen lehen aldiz -eta berak dioenez orijinaletik-, aleman itzulpenarekin, berau zaila dela aitortu arren¹⁷.

Astarloa Humboldtén gidari izan zen gramatika kontuetan, honek gidari bat behar baitzuen, oraindik ez zekien euskara nahikoa-eta (ez bide zuen ongi ulertzen hizkuntza mintzaturia, ez idatzia), ikasten baitzebilien. Eta Humboldték espresuki dio Astarloaren *Plan de Lenguas* jarraitzen duela batez ere¹⁸. Mitxelenak bere artikuluan Humboldték Astarloarekiko

13. *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der vaskischen Sprache* (Berlin, 1921). *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca* (Madrid, Minotauro, 1959)

14. *Correcc. y adic.*, RIEV XXIV, 17, Prefacio, J. Garateren itzulp.

15. Goetheri ere espresuki diotso, gutunez, lana bidaltzean (1821-V-15), in Garate, aip. *H. de Humboldt...*, "El euskera en las investigaciones sobre los aborígenes de la Península Iberica".

16. Ik. Mitxelenaren erreseina kritikoa 1959ko edizioari, BRSVAP 1960, 95-97. *Prüfung-en* arrakastaz ik. Michelena, "Guillaume de Humboldt eta la Langue Basque" aip. artik.

17. J. Urquijo, "La Crónica Iburgüen Cachopin y el Canto de Lelo", RIEV XIII, 458-472. J. Caro Baroja, *Algunos mitos españoles. Ensayo de mitología popular*, Madrid, 1941.

18. "Como yo he seguido principalmente al manuscrito de Astarloa en la parte gramatical de esta sección...", Garate, aip. *G. de Humboldt...*147; "Como yo todavía en la parte gramatical debo tomar como fundamento principalmente a Astarloa, así como en lo léxico a Larramendi...", id. 150.

erakutsi zuen ahulezia salatu zuen: ez dituela kritikatzan erabat eta argi ta garbi Astarloaren hizkuntz sistemaren edo metodoaren oinarriak, adibidez morfema eta fonemaren arteko identifikazioa, latin eta erromantzeen marka ez duela ezagutu e.a. Eta zertan jarraitzen dion eta zertan bereizten den aztertu zuen¹⁹. Bereziki aditzean agertzen dela euskal erakuntza garbienik uste du Humboldt, euskal aditzaren gakoa Astarloak aurkitu zuela aitortuz (aditz laguntzailea bere izenordain guztiak sartuta dituela, osagaion konbinazio-arauak e.a., honetan euskarak Ameriketako hizkuntza batzuen eitea izanik)²⁰. Duela gutxi X. Alberdik Astarloak deklinabidearen teoriar eginiko urratsa –kasuak eta posposizioak bereiztean edo ajeiteak (ergatiboak) duen garrantziaz ohartaraztean– azpimarratu du, Astarloari Humboldt jarraitzen diola (*Adelung-en Mithridates-i Zuz.*)²¹. Gramatika kontu hauek laburki baino ez ditut aipatu, Humboldt euskal gramatikari ekarritakoa ihardunaldi hauek beste txosten baten gaia delako. Euskal gramatikaren historian bezala, euskal fonetika eta ortografiarenean ere ezin da baztertu Astarloa. Eta euskal hizkuntzalaritzari dagokionez, jakingarria da Astarloak gizakien hizkuntz gaitasunean edo hizkuntza guztien oinarriko antzekotasunean sinesten zuela, I. Lakak erakutsi duenez²².

Euskal gramatikaren historiografian ez ezik hiztegi gintzarenean ere aipagarria da Humboldt, nahiz hau aztertu gabeko arloa den. Humboldt hiztegi bat egitean hasi zen, Larramendi oinarritat hartu eta Harriet eta Pouvreurenekin osatuz, Larramendiren hiztegiari akats handiak aurkitzen zizkiolako²³. Eta horretarako iturri eta bitarteko lagungarrien artean Mogelen *Nomenclatura de Voces Bascongadas* aipatzen du²⁴, euskaldunek elkar ulertzeko 150 hitz guttixoko delako zorrotz erantsiz. Baina Mogekek Larramendiri eginiko kritika aintzat hartzen du Humboldt, haren hitzak ekarriz:

“Corren, dice, entre el vulgo, tanto en Guipuzcoa como en Vizcaya, una cantidad de vocablos puros y originales que no conocen la mayoría de los clérigos y personas cultas. Se prestaría a la lengua un gran servicio si con evitación de las palabras corrientes en todas partes se redactara un catalogo de las menos conocidas. Entonces se hablaría una lengua más pura y más comprensible para el labriego que la “Trilingüe” (de Larramendi) en que algunos hablan al pueblo”. (Larramendiren hitzak erabiltzen dituzten sermoilariez ari da).

Adelung-en Mithridates-i Zuzenketak eta Eraskinak delakoan hiztegi hautatu bat dakar (euskara-alemana) hiztegiak hizkuntza ezagutzeko lehengai edo material bat eskaintzen due-

19. Michelena, L., “Guillaume de Humboldt et la Langue Basque”, *Lengua e Historia*, Parainfo, 1982. Humboldt-en kritikak Astarloari, ik. “Fuentes y medios auxiliares para el estudio de la lengua vasca”, *Garateren aip. G. de Humboldt...*, 146-149. or; *Espainiako Lehen Biztanleen...* gaztelera ediz. (Minotauro, 1959), 19. orr. eta urr.

20. Kontu honek behin eta berriz erakartzen du Humboldt. Ik. Garate, G. *de Humboldt...*, “Über die Verschiedenheit des menschlichen Sprachbaus”eko zatiak. Kawi hizkuntzari buruzko lanaren lehen partearen gaztelera itzulpen bat argitaratu da: *Sobre la diversidad de la estructura del lenguaje humano*, Anthropos, 1990, A. Agudena itzulpena.

21. “Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako”, ASJU XXIII-2, 1989, 411-434.

22. “Astarloaren hizkuntzalaritzaz”, ASJU XXIII-1, 1989, 75-86.

23. “su búsqueda penosa del correspondiente vasco a cada vocablo del léxico de la Academia Española”, “se repite otra cantidad de palabras hasta la fatiga”, “También se determina el concepto de la palabra vasca mucho menos cuando -como aquí sucede- sólo se cita como traducción de una española...”.)

24. *Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcainas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos*. Vitoria: Larumbe, 1801.

lako eta Alemanian holakorik ez zegoelako. Berak dioenez, hitz-familia garrantzitsu eta erabili-
 lienekin osatua, erro-hots (alem. *Wurzellaute*) sinpleenetara garamatzatenekin²⁵.

Halaber Berlingo *Collectanea Linguistica* delakoan Humboldtten paperen artean Astarloaren hiztegia omen zegoen, baita, J. Garatek-eta idatziaren arabera, Mahn-en hiztegia (1840ko dataz) eta Mogel eta Astarloaren testu batzuk²⁶. Humboldtten lan guztien berredizioan edo behintzat euskal lanenean agian argitu daitezkeen kontuak.

Humboldt herri kulturaren erakusburu diren kanta, doinu, ipuin eta kondaira, atsoitz, dantza eta abarren maitale eta biltzailea izan zen, eta, dirudienez, gure lehen folklorista, *avant le mot*, edo aitzindaria bederen. Euskal kantuak biltzen ditu bere 1801eko bidaldian, Aranbillet ltxasuko erretorearen etxean entzunak, kantuak eta doinuak eskatzen ditu eta Astarloaren obretatik jasotzen beste batzuk²⁷. Kantu eta kondairen berri ematen du bere bidaialiburuan, baita geroago ere²⁸, herriak maite dituela eta kanpoko itxura zaintzen dutela ohartaraziz eta horietako batzuk aipatuz (Izaroko fraile eta neskatxarena –Hero eta Leandroren kondaira bera omen dena–, Iturriaga azpeitiarraren etxean entzunak e.a.).

Garai berean Mogekek *Peru Abarka*-n herri-kanta (“Linuaren penak”), koplak, zortziko eta bertsoak, atsoitz, ahokorapilo e.a. jaso eta sartzen ditu, baliotsuztat zeuzkalako. Mogelentzat bertsolaritzak, atsoitzek e.a. euskaldunen “berezitasuna” erakusten dute, nahiz agian gehiago den tradizio kontua. Mogel dugu lehena, beharbada, alde honetatik eta beste batzuetatik (neurkera, kantua, trinkotasuna) bertsolaritzak duen balioa jasotzen. Atsoitzen kontua ere hor dago eta, bide batez, Mogelen atsoitzen arteko batzuk Oihenartegandik hartuak direnez, ez ote zuen Mogekek Oihenart Humboldtten bidez ezagutuko, honek Parisen kopiaitu zituenez gero haren bildumak (*Adelung-en Mithridates-i Zuz.*)? Eta Mogekek ez ezik Pablo P. Astarloak ere atsoitzak bildu bide zituen (“Recolección de Adagios Vascongados”)²⁹.

Mogelen herri-kanta biltze, bertsolaritzaren aintzat hartze hori ez ote zen gero Humboldtten eraginez? (eta Humboldti ez ote zetorkion Herdergandik herri-kultur formen zale-tasun hori?). Nahiz, herri-ipuinei dagokienez, Mogel ez zen horien zalea, ipui “onak” (“fábulas morales”) nahiago baititu. Areago, ez ote dago erromantizismoarrearen eragina Mogelgan? Mogel eta *Peru Abarka*-ren neoklasikotasuna azpimarratu izan da, eta neoklasizismo hori ez dago bakarrik irakasteko asmoan, formatan eta agian jeneroan, ideia eta ideiaetan ere bada-
 go, adibidez bizimodua zaharrek bezala antolatatu behar delako kontuan, edo lautasan, natu-
 razeletasan eta antzinazeletasunean.

25. “El diccionario escogido de palabras Bascongadas, formado aquí arriba, ni pretende, ni en manera alguna puede aspirar a la perfección. He procurado, no obstante, combinar el doble objeto de que acabo de hacer mención y me he esforzado en hacer entrar la principales familias de palabras vascas que fuesen al mismo tiempo las más extensas, particularmente las que conducen a los sonidos radicales más simples, y a no omitir en ellas un muy grande número de las ideas más usadas en una nación poco cultivada”, *Correcciones y adiciones*...Garate, 45.

26. Astarloaren hiztegiak ik. Garate, J., *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio de Moguel*, Bilbao, 1936, 150-152; Mahn-en hiztegiak, 54; Mogelen testu batzuek 104. or.; Astarloaren hiztegiagintzak orobat ikus daiteke nire *Bizkaierazko Idazle Klasikoak*, Bilbao, 1992, 224-225.

27. “Cartas a Carolina” (1801), Garate, aip. *G. de Humboldt*...99-100 or. Ducos-i (1801), “Recuerdos de Vasconia”, id. Garate, 108 or.. Azkue “Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlin, de los manuscritos de G. de Humboldt, a 5 de Agosto de 1922.”, *Euskera*, 1925. Astarloaren idazlanetatik jasotako seaska-kanta ik. Garate, *G. de Humboldt*, 175 or. –Riezu, J. de, “Material Folklórico de la Collectánea Linguística de Humboldt. Canción del vino”, *Boletín Sancho el Sabio*, 1971, 91-115.

28. Garate, aip. *H. de Humboldt*..., “Fragmentos filológicos vascos”, 10 “Einleitung zum Kawiwerk”.

29. Ik. J. Garate, aip. *La época*..., 150-152, orobat nire *Bizkaierazko Idazle Klasikoak*, 224-225.

Baina erromantizismoaurrearen ikutu eta eragin bat ere badagoelakoan nago. Hain zuzen, hiriko bizimoduaren kritikan, eta agian hezkuntza arrazionalaren ustelduraren kritikan ere, edo natura garbia hirietako luxuari kontrajartzean, euskaldunen jatorri historikoen aldarrikatzean (nahiz Mogelek euskal mitoak eta sinbolo politiko eta kulturalak tradizioz jaso zituen eta ez erromantizismoaurrearen eraginez) suma daiteke eragin hori. Erromantizismoaurreak herrien jatorri garbitasuna aldarrikatu zuen, *Genius* edo "jatortasuna" delakoarekin batera, hau da, herri bakoitzaren berezitasuna. Eta herrien jatorri komuna erakusten duten mito eta tradizio historiko, sineste, ohitura eta errito, lege eta erakunde, eta batez ere hizkuntza bereziak osatzen dute "sustrato etnikoa", prerromantikoentzat europar nazionalismoaren oinarria, ikerle batzuen arabera³⁰. (Artetik esan dezadan, Humboldttek euskaldunen "sustrato etniko" hori balio gutxitu zuela, dirudienez, euskal erakundeen desagertzea ez ezik euskararena ere igarri uste baitzuen). Erromantizismoaurrearekin berez dator herri kulturaren balioak eta emaitzak aintzat hartze hori, *Peru Abarka*-n garbi agertzen dena.

BIBLIOGRAFIA

- ASTARLOA, P.P. *Plan de Lenguas ó Gramática Bascongada en el dialecto bizcaino, por D. Pablo Pedro de Astarloa y Aguirre*. Laburpena ("Extracto"), RIEV 1935, XXVI; id. "Pablo Astarloa. Extracto humboldtiano de su Plan de Lenguas", *Euskera* VI, 1961, 247-279.—*Discursos Filosóficos sobre la lengua primitiva o Gramática y Análisis razonado de la Euskara ó bascuence por D. Pablo Pedro de Astarloa, Presbítero, natural de Durango* (Bilbao, 1883).
- HUMBOLDT, W. von, *Werke in Fünf Bänden*, Hrg. A. Flitner-K. Giel.—*Correcciones y Adiciones a la primera Sección del segundo volumen de la obra intitulada el Mithridates sobre la Lengua Cantábrica ó Vasca por Guillermo de Humboldt en Berlín año de 1817, en la Librería de Voss*, RIEV XXIV, J. Garate-ren itzulp.—*Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelt der vas-kischen Sprache* (Berlin, 1921). *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca* (Madrid, Minotauro, 1959).—*Sobre la diversidad de la estructura del lenguaje humano*, Anthropos, 1990, A. Agud-en itzulp.
- MOGEL, J.A. *Versiones Bascongadas de varias arengas, y oraciones selectas de los mejores Autores latinos. O Demonstración práctica de la pureza, fecundidad, y eloqüencias del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios Escritores extraños, y contra algunos Bascongados, que solo tienen una noticia superficial del idioma patrio*. Por Don Juan Antonio de Moguel y Urquiza. Con licencia. En Tolosa: Por Don Francisco de la Lama. Año M.DCCC.II.—*La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma Vascuence. En la que se trata de la Religión de los antiguos Cantabros, de la Unidad del Idioma primitivo Español contra el sistema particular del Abate Masdeu. Demonstración de los vocablos vascongados que se hallan en toda la península según el mapa general de España; Nombres de la Historia antigua de ella. Nomenclatura de Cartaluña. Su autor, D. Juan Antonio Moguel Cura Párroco de Marquina en Vizcaya*. Gaubeka, 1936; 2. zatia, Gaubeka, 1937, *Euskera*, 1937, XVIII, 3-64.—*Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcainas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos*. Vitoria: Larumbe, 1801.
- ALBERDI, J., "Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako", ASJU XXIII-2, 1989, 411-434.
- ALTZIBAR, X. "Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)", *Euskera*, 1986, 123-29.—*Bizkaierazko Idazle Klasikoak*, Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.
- AZKUE, R. M., "Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlin, de los manuscritos de G. de Humboldt, a 5 de Ag. de 1922.", *Euskera*, 1925.

30. A. D. Smith, "Neo-classicist and Romantic Elements in the Emergence of Nationalist Conceptions", *Nationalist Movements*, ed. A. D. Smith, The Macmillan Press, London, 1976.

- CARO BAROJA, J. *Algunos mitos españoles. Ensayo de mitología popular*, Madrid, 1941.
- GARATE, J., *G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbao, Imprenta Provincial, 1933.–*La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio de Moguel*, Bilbao, 1936.
- LAKA, I., "Astarloaren hizkuntzalaritzaz", ASJU XXIII-1, 1989, 75-86.
- MITXELENA, L., "Guillaume de Humboldt eta la Langue Basque", *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madrid, 1982.
- RIEZU, J. de "Material Folklorico de la Collectánea Linguística de Humboldt. Canción del vino", *Boletín Sancho el Sabio*, 1971, 91-115.
- SMITH, A. D. " Neo-classicist and Romantic Elements in the Emergence of Nationalist Conceptions", *Nationalist Movements*, ed. A. D. Smith, The Macmillan Press, London, 1976.
- URQUIJO, J. "La Crónica Iburgüen Cachopin y el Canto de Lelo", RIEV XIII, 458-472.